



SINATZAILEA

SECRETARIO/INTERVENTOR  
JON ETXAGÜE GOIA  
2026/05/28

NIF: P3147827D

## SECRETARÍA E INTERVENCIÓN

Espedientea 301951C

2026ko maiatzaren 27an Malerreka Zerbitzu Orokorraren Mankomunitateko Asanbladak, bere partaideen gehiengo osoaren parekoa den kide guztien adostasunarekin, ondoan osoki idatzirik dagoen akordioa onetsi zuen (behin betiko testua akta onartzen denean egongo da):

*En la sesión que la Asamblea de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka celebró el día 27 de mayo de 2026, se adoptó, por unanimidad que representa la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Asamblea, el acuerdo cuyo texto íntegro se transcribe a continuación, a reserva del texto definitivo que resulta de la aprobación del acta:*

**GESERLOCAL, SL, MALERREKAKO ZERBITZU OROKORREN MANKOMUNITATEAREN INSTRUMENTU-ERAKUNDE BEZALA AITORTZEA**

**DECLARAR A GESERLOCAL, SL COMO ENTE INSTRUMENTAL DE LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS GENERALES DE MALERREKA**

Geserlocal S.L merkataritza-sozietatea da, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta Zangozako, Erriberriko eta Lizarrako udalek sortu eta eratutakoa, Nafarroako toki-entitateei diru-bilketa exekutiboko zerbitzua emateko. Gaur egun, Geserlocalek entitate horientzat bere xede sozialean jasotako beste zerbitzu osagarri batzuk ere ematen ditu.

*Geserlocal S.L es una sociedad mercantil, creada y constituida por la FNMC y los ayuntamientos de Sangüesa, Olite y Estella, para prestación del servicio de recaudación ejecutiva a las entidades locales de Navarra. En la actualidad Geserlocal viene desarrollando para estas entidades otros servicios complementarios incluidos en su objeto social.*

NUKFK kapitalaren %97 dauka, eta gainerako %3 aipatutako hiru udalena da.

*La FNMC posee el 97% del capital y el 3% restante pertenece a tres municipios citados.*

Denbora honetan guztian, Geserlocalek zerbitzu horiek eman dizkie Nafarroako toki-entitateei, kontratazio-araudiaren arabera hartutako esleipen-erabakien bidez.

*Durante este tiempo Geserlocal ha venido prestando estos servicios a las entidades locales de Navarra en virtud de acuerdos de adjudicación adoptados conforme a la normativa de contratación.*

Indarrean dagoen kontratazio-araudia eta botere esleitzaila eta tresna-erakundeei buruzko aurreikuspenak kontuan hartuta, bereziki Sektore Publikoko Kontratazioari buruzko 24/2014 Zuzentaraua eta apirilaren 13ko Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legea, posible da sozietate honi instrumentu-erakunde izaera ematea, kapital sozialean zuzenean parte hartzen duten udalekiko ez ezik, NUKFKo kide diren toki-entitateekiko ere, federazioa sozietatearen titular nagusia den aldetik. Horretarako, honako baldintza hauek betetzen dira:

*Teniendo en cuenta la normativa vigente de contratación y las previsiones existentes sobre poderes adjudicadores y entes instrumentales, en especial la Directiva 24/2014, sobre Contratación Pública y Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos de Navarra, se considera posible la atribución a esta Sociedad de la Condición de ente instrumental, además de respecto de los ayuntamientos que participan directamente en su capital, de las entidades locales pertenecientes a la FNMC como titular mayoritario de la sociedad. A tal efecto se cumplen las condiciones exigidas para ello:*

- 1.- Kapital osoa publikoa da.
- 2.- NUKFK eta hari lotutako toki-entitateek sozietatearen gaineko kontrol bateratua gauzatzen dute, federazioaren bidez.
- 3.- Geserlocalek bere jardueraren funtsezko zatia baliabide propioaren izaera aitortua dioten toki-entitateentzat egiten du.

- 1.- La totalidad de su capital es público.
- 2.- Concurrencia de un control conjunto de la Sociedad por la FNMC y de las entidades locales asociadas a esta entidad, a través de la misma.
- 3.- Geserlocal realiza la parte esencial de su actividad para las entidades locales respecto de las que ostente la atribución de medio.



SINATZAILEA

PRESIDENTE  
JON TELLETXE JUANENEA  
2026/05/28

MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS GENERALES DE MALERREKA

Egiaztapen-aseguru kodea: DMCA AALM TEY2 9W4J WQHY

**ACUERDO DE LA ASAMBLEA: DECLARACIÓN DE GESERLOCAL SL COMO ENTE INSTRUMENTAL DE LA MANCOMUNIDAD - SEFYCU 330086**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.malerreka.eus/>

2tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

SECRETARIO/INTERVENTOR  
JON ETXAGUE GOIA  
2026/05/28

NIF: P3147827D

## SECRETARÍA E INTERVENCIÓN

Espedientea 301951C



SINATZAILEA

PRESIDENTE  
JON TELLETXEA JUANENEA  
2026/05/28

Zentzu horretan informatu du Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzordeak bere 1/2021 txostenean.

Aurrekoa kontuan hartuta, NUKFko Batzorde Betearazleak, Geserlocali federazioari atxikitako eta hala erabakitzen duten toki-entitateen instrumentu-erakunde izaera aitortzea erabaki zuen.

Ondorioz, apirilaren 13ko Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 8.2.d) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, **ERABAKI DA:**

1.- Geserlocal, S.L. Malerreka Zerbitzuen Mankomunitatearen baliabide propio pertsonifikatu eta instrumentu-erakunde izendatzea, aipatutako Foru Legearen 8. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

2.- Egiten diren enkarguen esparrua honako prestazio hauetara mugatu ahal izango dela deklaratzeko: diru-bilketa exekutiboa, isunen kudeaketa, kontabilitatea, eta bere xede sozialean sartzen diren bestelako zerbitzuak.

3.- Erabaki hau NUKFari eta Geserlocali jakinaraztea, eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.

*En este sentido ha informado la Junta de Contratación Pública de Navarra, en su informe 1/2021.*

*Teniendo en cuenta lo anterior, la Comisión Ejecutiva de la FNMC, acordó atribuir a Geserlocal la condición de ente instrumental de las entidades locales asociadas a la misma que así lo acuerden.*

*En consecuencia, conforme a lo dispuesto en el artículo 8.2.d) de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos de Navarra, **SE ACUERDA:***

*1.- Declarar a Geserlocal, S.L. como ente instrumental de la Mancomunidad de Servicios de Malerreka a efectos de lo dispuesto en el artículo 8 de la precitada Ley Foral.*

*2.- Declarar que el ámbito al que se pueden circunscribir los encargos que se realicen sean las prestaciones correspondientes a la recaudación ejecutiva, gestión de multas, contabilidad, así como otras que encajen en su objeto social.*

*3.- Notificar el presente Acuerdo a la FNMC, Geserlocal y proceder a su publicación en el Portal de Contratación de Navarra.*

**Donezteben, sinadura elektronikoaren datan / En Doneztebe/Santesteban, a la fecha de la firma digital.**

**LEHENDAKARIA / EL PRESIDENTE**  
**Jon Telletxea Juanenea**

**IDAZKARIA / EL SECRETARIO**  
**Jon Etxague Goia**

MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS GENERALES DE  
MALERREKA

Egiaztapen-aseguru kodea: DMCA AALM TEY2 9W4J WQHY

**ACUERDO DE LA ASAMBLEA: DECLARACIÓN DE GESERLOCAL SL COMO ENTE INSTRUMENTAL DE LA MANCOMUNIDAD - SEFYCU 330086**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.malerreka.eus/>

2tik 2 orrialdea